

KOSTUEN EGITURA

Gastuak aztertuz gero, izango ditugun kostu finkoa eta zeharkako kostua, finkoak eta aldakorrak eta, gizarte kostuak eta ingurumen kostuak.

Kostu zuzenei dagokiones, erabiliko dugun lokala (355€ / hilabetero) daukagu. Enpresa handitzen den heinean, lokala handiago bat bilatu beharko dugu. Baina behintzat lehenengo urtean, aipatutako lokalean lan egingo dugu.

Kostu aldakorretan, erosiko ditugun kamisetak zein produktuak daude. Erosketak egiten ditugunean, gero eta gehiago erosi, prezioa handiagoa izango da.

Orain arte 30 kamiseta baino ez erosiko ditugu eta kamiseta bakoitza 10-20€ artean kostatzen zaizkigu beraz 35-40€ salduko ditugu, azkenean joslari baten eskulana ordaindu behar dugulako.

Kostu finkoak, aurretik aipatutako lokalaz gain, soldatak egongo dira. 4 direktiboen soldatak irabazien portzentaia izango da. Demagun kamiseta bakoitzeko (hornitze kostua eta zergak kendu ondoren) 6 € irabazi ditugula. Hortik, irabaziaren %50 soldatetan gastatuko dugu. %50 horietik direktibo bakoitza irabazi bat izango du, soberan dagoen beste %25 langileen soldatetan.

Gizarte kostuak, tokiko langileak kontratatuko ditugu baina hori etorkizun batean. Gure enpresa gora egin ahala, gero eta infrastruktura hobetoak eraikiko ditugu gure enpresaren alboan.

Ingurumen kostuak, arropa pilaketan eta eraldaketan arituko garenez, ez dugu gure inguruan modu zuzen batean eragingo.

Hasieran egin beharko dugun inbertsioak hauek izango dira eta hiletan neurrituta daude.

Lokala	355 €
Soldatak	1080 €
Marketin digitala	500 €
Direktiboak	4000 €

Totalean 6000€ inguru behar izango ditugu. Enpresa handitu heinean gastuak ere handitu egingo dira arlo guztietan, lokal handiagoa, langile gehiago kontratatu, marketinean gehiago inbertitu eta direktiboen soldatak igotzen.

Soldatak 1080€ izango dira azken finean jostun bakarra daukagulako eta Espainian gutxieneko soldata ordaintzen diogulako.

Lokala lehen esan dugun bezala 355€ dira eta marketing digitala hainbat plataformen bidez egingo ditugu, esaterako tik tok ads eta instagram ads erabiliz.

Bi hauek erabiltzea erabaki dugu, gaur egun sare sozialak telebista edo beste web baino pertsona gehiago ikusten dutelako.

Hasierako inbertsioa

